

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure enpresaren funtsezko jarduerak hauek dira:

**Ospitalean dauden haurrekin egotea:** Haur bakoitzaren beharrak eta gustuak ikusiko ditugu ekintza bat edo beste bat egiteko orduan. Jarduerak denon artean pentsatuko ditugu (mahai jokoak, teknologia jokoak, buruketa jokoak, antzerkiak...)

**Kartelak egitea:** Ospitalean itxazteko kartelak egin beharko dira. Hau denon artean egingo dugu.

**Web orria egitea:** Lagun batek egingo digu dohainik eta denon artean kudeatuko dugu.

**Sare sozialak:** Gutako bat arduratuko da sortzeaz eta denon artean kudeatuko dugu.

**Bezero arreta pertsonalizatua ematea:** Haurrek eta hauen familiek gure telefono zenbakia nahiz emaila izango dute gurekin nahi dutenean harremanetan jartzeko.